

# elkar

UDA 2023
72. ZENBAKIA
www.elkar.eus

## OIHANE AMANTEGI

*Cayo Hueso*
Amodioaren gertagaiztasunaz

+

## TONI HILL

*El último verdugo*, un asesino en serie sin precedentes

## EVA GARCÍA SÁENZ DE URTURI

*El ángel de la ciudad*, un *thriller* entre Gasteiz y Venecia

## IZEN PROPIOAK:

Juan Kruz Igerabide · Felix Arrieta · Miriam Luki · Amaia Alvarez · June Fernandez · Martin Etxeberria · Irati Jimenez · Antton Olariaga · Begoña Arrieta · Aitor Armendariz-Ibarrola · Eñaut Aiartzaguena · Víctor Escandell

8435226189840

# IRRIA

**Urtean 10 zenbaki**
etxeko txikienen artean irakurzaletasuna, sormena eta ahozkotasuna sustatzeko

## ipuinak, komikiak, zientziako infografiak, denbora-pasak, jolasak, eskulanak




Egin IRRIAren harpidetza, eta baliatu gure eskaitza berezia: **10 €-ko bonoa** Elkar dendetan erabiltzeko




URTEKO
49€
HARPIDETZA

### NON EGIN HARPIDETZA?

- Elkar dendetan
- Katxiporretaren ikuskizunetan
- (0034) 943-30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus orrian
- www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian

berria elkar Katxiporreta IRRIEN LAGUNAK www.irrienlagunak.eus




EÑAUT AIARTZAGUENA





elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)**
Telletxe 11
94 491 66 16

**ARRASATE**
Erdikokale 14
943 79 78 29

**BAIONA**
Gouverneurs 9
559 59 35 14

**BARAKALDO**
Merindad Uribe 14
944 37 22 76

**BASAURI**
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

**BERGARA**
Ibargarai 7
943 76 40 50

**BILBO**
Licenciado Poza 14
94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale
94 416 14 50
Iparragirre 26
94 424 02 28

**DONOSTIA**
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80
Bergara 6
943 42 63 50

**GASTEIZ**
San Prudencio 7
945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus
945 14 16 70

**HERNANI**
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

**IRUN**
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

**IRUÑEA**
Comedias 14
948 22 41 67
Leire 9
948 17 55 38

**TOLOSA**
Arostegieta z/g
943 67 35 33



# OIHANE AMANTEGI



“Gauza bukatugabeek uzten duten zapore horretaz aritu nahi izan dut oraingoan”

**_Ibaiertzeko ipuina_ (Elkar) liburuarekin azaldu zen Oihane Amantegi literatur plazara, 2020an, eta bigarren liburua kaleratu du orain: _Cayo Hueso_ (Elkar). Aurrekoa bezala, ipuin luzearen eta nobela laburraren artean dabil hau ere, eta, lehen lanean bezala, kontatzen duena ez ezik, kontaera zaindua da bigarren honen ezaugarri nagusietako bat. Joseba Sarrionandiak egin dio hitzaurrea.**

**CAYO HUESO**
Oihane Amantegi
ELKAR




**Virgil musika kritikariaren eta Maudey abeslariaren arteko amodio enkontrua kontatzen du liburuak, baina, benetan, amodio enkontruen gertagaiztasuna da sakoneko gaia. Txiripa puntu bat du beti horrek.**

Gustatzen zait txiriparena. Horixe delako gaia, bai: zenbat faktore gertatu behar diren aldi berean, egoera jakin batean, pertsona bat ezagutu ahal izateko, eta enkontru hori gerta dadin. Horrez gainera, elkar topatzeko dugun zailtasunaz ere ari da liburua, baita behin, aukera posible guztien artean, enkontru hori gertatzen denean ere. Bakoitza oso bere unibertsoan dago, eta, batzuetan, oso txikia da unibertso horiek konpartitzen duten esparrua, eta konpartitu gabekoa, berriz, oso zabala.

**Horregatik kokatzen duzu istorioa Cayo Hueson? Florida hegoaldeko artxipelagoko azken irletako batean, alegia?**

Mapan argi ikusten da artxipelago hori zer den. Bizkarrezur baten irudia da hori, eta horko azken harri sol-



tea da Cayo Hueso. Nahiko ezinezkoa da artxipelago hori gertatzea bera ere.

**Istorioak eraman zaitu hara, edo kokapenak ekarri dizu istorioa?**
Han egona nago, eta zerbait geldituko zitzaidan barruan egon nintzen hartatik. Istorio asko har ditzakeen leku bat da, oso leku berezia.

**Atenporaltasun moduko batean bildu duzu kontakizuna. Esate baterako, liburu osoan ez da autorik aipatzen, eta lagundu egiten dute halako detaileek istorioa denboraz kanpo uzten.**
Cayo Hueson badago denboraren berri ematen duen elementuren bat, baina gutxi dira. Kontatzen da, adibidez, nola egon zen tren bat, eta urakan batek nola suntsitu zuen. Baina hori bakarrik. Asko despistatzen nau denbora markak sartu beharrak. Istorioan zentratu beharrean, eszenarioari buruz pentsatzera naramate halako elementuek. Kontatu nahi dudana kontatzeko ez ditut behar.

**Trama bat badu testuak, baina ez dirudi hori denik liburuaren erdigunea. Zein da motor nagusia zuretzat?**
*Cayo Hueso* eta *Ibaiertzeko ipuina* antzekoak dira horretan. Kontatzen da gauza bat, baina ez da kontatzen dena bakarrik, baizik eta gero horren inguruan zer kontatu nahi den. Desenkontruez aritu nahi nuen oraingoan, eta, batez ere, nostalgiaz; mila milioi aukera posible horiek irekita uzten dituzten galdera ikur horiei buruz, gauza bukatugabeek uzten duten zapore horretaz, eta liburuak kontatzen du ere protagonistek nola gestionatzen duten nostalgia hori. Eta hori kontatu ahal izateko, hor dago maitasun enkontru hori.

**Bere burua "kapitain zaharra" izendatzen duen narratzailearen bidez jasoko du irakurleak kontakizun osoa. Oso eite klasikoa du haren kontaerak.**
Kosta zitzaidan harekin jotzea. Ahots asko zeuzkan liburuak hasieran, eta pertsonaien bidez egiten zuen aurrera. Xabier Mendiguren editoreak ere bultzatu ninduen hori aldatzera, eta hala hartu nuen kapitainaren figura horri heltzeko erabakia. Oso gustuko nituen aurrez idatzitako paragrafo batzuk solte gelditu ziren horren ondorioz, eta kanpo gelditu dira, azkenean. Dena bildu nuen kapitainaren figurara.


AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

**Idaztearen plazera igartzen da orri bakoitzean. Ikusi egiten da gozatu egiten duzula testuaren erritmoarekin, esaldien egiturekin eta puntuazioarekin lanean. Hala da?**
Hor gozatzen dut benetan. Trama eta pertsonaiak eraiki egin behar ditut, ze bestela ez dago istoriorik, eta zerbaitez hitz egin behar dut, eta idazten jarri ahal izateko marko bat behar dut, baina beste elementu horiekin gozatzen dut nik gehien. Hala izan zen *Ibaiertzeko ipuina* liburuarekin, eta, igual, oraingoan gehiago. Oso gustura egin dut azken idazketa. Ozenki irakurtzen dut idatzitakoa beti, eta musika bilatzen diot. Irakurtzea gustatzen zaidana horrelakoa da, eta suposatzen dut norberak idazten duena norberak irakurtzen duenetik doala, edo norberak irakurri nahi lukeenetik.

**Bereizgarria da zure kontaera. Zer garrantzi du estiloak zuretzat?**
Igual hor dago jarrita esfortzua, baina ez da erabaki kontzientea. Agian nire idazteko modua hori da, edo hori ari da izaten nire lehenengo bi liburu hauetan. Ez duzu pentsatzen, baina, ohartu gabe ere, erabaki hori hartu egiten duzu, azkenean, gauza bati beharrean beste gauza bati eskaintzen dizkiozulako denbora eta arreta.

**Gertatutako bizitza bakoitzaren barruan gertatu gabeko bizitza gehiago daudela esaten da liburu amaiera aldeko pasarteetako batean. Hori azaleratzeko modua izan daiteke literatura?**
Kasik-kasik uste dut esaldi hori dela liburua. [Liburuan bilatzen du pasartea eta ahots goran irakurtzen du]. "Geratu zaiolako gertatu gabeko bizitza bat oraingo honen barruan, eta batek daki –pentsatzen du Maudeyk– oraindik gertatuko den". Mundu guztiarengan dago sentsazio hori: hau egin beharrean hura egin banu, hori eta beste gertatu balitz... Paralisia eragin dezake galdera horrek, hor trabatuta geratzen bazaizu, ze galdera horiek egin behar ditugu, noski, baina ezin gara galdera horietan etengabe egon. Eta hori ere kontatzen du liburuak.

**IÑIGO ASTIZ**
Kazetaria





# JOAN MARI IRIGOIEN

74 urterekin hil da, bere jaioterri Altzan, Joan Mari Irigoien. 1975ean kaleratu zuen bere lehenengo liburua, *Hutsetik esperantzara*, eta 2022an azkena, *Sorgin-argien ehizan*, biak poesiazkoak; tartean beste 30 bat liburu, gehienak nobelak. Denak aipatuz gero zerrenda hutsa litzateke soslai hau, baina komenta ditzagun batzuk, bere ibilbidearen mugarri izan zirenak bederen.

*Oilarraren promesa* (1976) izan zuen estreinakoa, Hego Amerikan ikasitako errealismo magikoa sorterriaren txikizioa azaltzeko erabili zuenekoa. *Poliedroaren hostoak* (1983) bere unibertso partikularraren idazlan fundazionala dela esan liteke, eta haren perfekziotzat joko genuke *Babilonia* (1989). *Lur bat haratago* (2000) eleberri historiko monumentalarekin goia jo zuela esan daiteke, baina beste ildo batzuk ere landu zituen, hala nola umorezko nobela (*Kalamidadeen liburua* (1996) eta beste), salaketazkoa (*Arma, tiro, bammm!* (2013) edo bilaketa espiritual baten berri ematen dutenak (batez ere *Orbetarrak* trilogia (2008-2010)); ahaztu gabe gazteentzat idatzi zituenak, olerki-bildumak...

Ingeniaria zen Irigoien formazioz, futbolerako dohain bereziak zituena eta hainbat ogibidetan ibilia (itzultzaile, zuzentzaile, irakasle...). Alabaina, berak garbi zuen idazlea zela oroz gain, zeregin horri eman nahi zizkion bere onenak, eta helburu hori betetzea posible izan zuen Elkar Fundazioarekin egindako hitzarmenari esker (1990etik 2014an erretiroa hartu zuen arte). Gaixotasunak murriztu egin zizkion mintzamena eta mugikortasuna, ez ordea bere alaitasuna, adeitasuna eta gizartearekiko konpromisoa.

Gizon on, dotore, eskuzabal eta umoretsuaren oroitzapena utzi du ezagutu zutenen artean, eta euskal kultura oparo aberastu duen obra eder bezain miresgarria oraingo nahiz etorkizuneko irakurzale guztion eskuetan.

**XABIER MENDIGUREN**
elkar Fundazioaren izenean



BARREN-BARRENEAN

# ERREALISMOAZ HARATAGO



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Idazleak ere badiren lagunen artean behin baino gehiagotan galdetu izan dut, “errealismoaren moda hau noiz bukatuko da?”. Brometan, jakina, ez baitaukat ezer errealismoaren kontra; baina benetan ere bai, egia esatea nahi baduzue, gogaikarria eta apur bat lotsagarria egiten zaidalako gure sistema literarioan nolabaiteko errealismo hertsitik ateratzen den guztiari kasurik ez egiteko edo egiten den guztiari baina bat jartzeko daukagun ohitura tristea. Gutxi idatzi dugulako akonplejatuta gaudenez, gure lehen betebeharra serioak izatea dela iruditzen zaigu eta, tamalez, literatura serioa guretzat oso gauza estua da.

Denboraz, garaikidea izan behar du. Gaiari dagokionez, egunkarietako orrialdeetan agertzen diren kontu potoloei buruzkoa, deitu gerra zibila, euskal gatazka edo emakumeen kontrako indarkeria. Bilatzen den irakurlegoa heldua, kritikoa, jasoa eta ez oso ugaria. Liburu salduak txarrak direnez, hobe lortzen diren irakurleak kasualitatez lortu badira, idazlearen borondatearen kontra ez esatearren. Nobelak edo ipuinak idatz daitezke, baina generoari dagokionez ez dago zalantzarik. Narrazio beltzak, historikoak, fantastikoak, gotikoak, erromantikoak, zientzia-fikziozkoak, misteriozkoak, *thrillerrak*, poliziakoak, distopikoak, eta horien guztien deklinazio infinituak bigarren mailako generoak dira guretzat. Gaur egungo gizartearen nolabaiteko kritika zorrotzak gustatzen zaizkigu. Ia denaren kontra dagoen literatura goresten dugu, zerbaiten alde egotearen saldukeria salatzen duena.

Zenbat maisulan ez ote lituzkeen gure sistemak gutxietsiko! **Jonathan Swift**en *Gulliverren bidaiak* eta **Lewis Carroll**en *Alizia herrialde miresgarrian* ez genituzke kontutan hartuko, erdi haurrentzakoak dirudite eta erdi brometakoak dira. *On Kixote* ere, kanpora. Irakurleen artean arrakasta izan zuen komedia bat? Ezta pentsatu ere. Eta orain askotan aipatzen dugun arren, agur **Orwell** ere bere animalia hiztunekin (*Abereen etxaldea*, Elkar, 1982) eta bere etorkizuneko ergelkeriekin (*1984*, Txalaparta, 2020). **Hemingway**? Ez dut uste meriturik aitortuko geniokeenik. Liburu asko saltzen zituen, eta hizkuntzari bueltak ematen egotea baino gehiago gustatzen zitzaion gauzak kontatzea.

**Steinbeck**ek autore serio bilakatzeko aukera gehiago izango lituzke gure artean. Izan ere, *Las uvas de la ira* kontakizun mitologikoa da, baina giro poetiko sobrenaturalista errealismo sozialaren itxurapean ezkutatu zuenez, uste dut sistema engainatu ahalko lukeela. **Gabriel Aresti**rekin bezala gertatuko litzaiguke, politikoa eta soziala izatearekin konformatuko ginatekeela, sobrenaturala eta mitologikoa ere badela ikusi gabe. Baina gurekin jai lukete **Becquer** erromantikoak –apenas euskaratu gabea– eta **Stevenson** abenturazaleak –*Jekyll Doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia* (Erein, 2019) gogoangarriaren egileak–. Jai baita ere **Poe** gotikoak (*Kontakizunak*, Elkar, 2012) eta **Julio Cortazar** fantastikoak (*Antologia apetatsua*, Txalaparta, 2004).



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Ezagutza gehiago eta aurreiritzi gutxiago balitu, gure sistema literarioak jakingo luke honezkero liburu baten meritua baloratzeko orduan generoak ez duela ezer esaten. Bere buruari ezarri dizkion arauen baitan, idazleak noraino eraman gaituen, hori da kontua. Zein da planteatu duen ariketa eta ze mailataraino lortu duen ariketa hori arrakastaz burutzea. Besterik ez. Errealismoaren baitan, egin daitezke errealitatearen ezagutza falta larria erakusten duten ariketa eskasak eta errealismotik kanpo askotan egin dira errealitatea errebelatzen asmatu duten ariketa bikainak. Sobrenaturalismoak ez baitu ukatzen errealitatea, zabaldu egiten du, gizakiok berezkoa dugun dimentsio sobrenaturalari leku egiteko. Gure mitoak, gure fedeak, sinesmenak, superstizioak, eta irudipenak ere errealak baitira, humanoak diren neurrian.

Generoak ez dira hierarkiak. Bideak dira. Eta, bide batetik zein bestetik, literatura ona beti da norabide berean doana: egiarantza. Gerta daiteke denok ezagutzen dugun mundu honetan edo eraman gaitzake existitzen ez den edo existitu ezin daitekeen mundu batera, baina ondo eginda badago, beti izango da egiaren baten jabe eta beti lagunduko digu mundu honetako egiaren bat deskubritzen.

# IZENAK ETA IZANAK

TXALAPARTA

Nola esaten da *bollera* euskaraz? Ba al da beste hitzik edo hitz bereziturik emakumeen arteko praktika sexualez aritzeko? Zer errepresentazio egin dira arte adierazpenetan bollerei buruz? Euskal kulturak begiratu al dio desira lesbikoari? Hala bada, non jarri du begia?

Galdera horiei eta beste hainbati heldu diete **Amaia Alvarez** irakasleak eta **June Fernandez** kazetariak liburu honetan, baina ez daude bakarrik, talde-lanean osatutako proposamena baita hau. Zinegoak elkarteak bota zien amua, eta autoreek, ekintzaile feminista ere badirenek, amuari kosk: euskararen eta lesbianen komunitatearen ardatzak nola gurutzatzen diren aztertu dute. Horretarako, lau atal aurkezten dituzte: lehenik, hiztegi edo glosategi labur bat, bolloen komunitateak bere burua euskaraz nola izendatzen duen ikusteko; nolabait, **Aitor Aranak** Txalaparta argitaletxean kaleraturiko *Gay hiztegia* izan dute eredu. Bigarren atalerako, Euskal Herriko talde eta norbanako lesbofeministak elkarrizketatu dituzte, eta haien hitzetan oinarritutako gogoeta bat jaso dute, bolleren komunitatearen eta euskararen arteko gurutzaketak zeintzuk eta nolakoak izan diren jakiteko. Hirugarren atalean, euskal kultura edo arteetan bollerak irudikatu ote diren aztertu dute eta, hala izan bada, zer modutan (diziplina hauek izan dituzte aztergai: dantza, arte plastikoak, antzerkia, bertsolaritza, ilustrazioa, musika, literatura eta ikus-entzunezkoak). Azken atalean, "Lesbosetik gatoz" izenekoan, bollerei buruz diharduten euskal idazle, musikari, irudigile, bertsolari eta artisten sorkuntza-piezak bildu dituzte. Liburuan argi geratzen denez, komunitate bolleroan hegemonia linguistikoa arrakalatu egin da azken urteetan, eta ontzat ematen da euskarak militantziarako duen potentzialtasun politikoa. Horrela, liburu honek tresna bat izan nahi du: euskal bolleren identitate eta praktika linguistikoen erradiografia oso bat eginez, hizkuntza minorizatuaren eta sexu-disidentziaren intersekzioen ertz askotarikoei argia, ahotsa eta plaza eman nahi die, ikusgarritasun lesbikoaren mesedetan.




**MARIOKERRAK**
NOLA ESAN/IZAN BOLLERA EUSKARAZ
Amaia Alvarez Uria
June Fernandez Casete
TXALAPARTA

# ARGIALDIAK

SUSA




**ARGIALDIAK**
Miriam Luki
SUSA

Ogiaren usaina eta izuarena. Hitzen pisua eta iraganarena. Nola eraman guztiak gorputz bakarrean? Zer esan merezi izan ote duen jakin nahi duenari? Zer prestatu azkena izango den afari handirako? Noraino garen ahizpa eta zenbat gehiago iraun dezakeen ihartzen utzitako laguntasunak; zenbat trago izango ziren denera, zenbat airean kiskalitako hegazkinak, eta bidean geratutako deiak eta bisitak. Gisa horretako galderak dabiltza **Miriam Lukiren** estreinako ipuin liburuko protagonisten buruetan. Bederatzi ipuinez osatutako bilduma da, eta denetan dago argialdiren baterako tartea, pertsonaietako baten bat-bateko argitasunerako lekua. Norari ia egunero etortzen zaio gustuko ez duen bisitari bat okindegira, aspaldiko norbait gogorarazten diona; Ernestinari kide batek deituko dio señoraren etxea garbitzen ari dela, berak zaintzen duen andrea hil egin dela esateko; hitzen inbasio baten ondorioz burua handituko zaio beste ipuin baten protagonistari; Maitek azken aldiz egingo du urteetan errepikatu den bidaia luzea, oraingo honetan bakarrik; azken souffle bat prestatuko dio bikotekideari Amaiak, **Artemisia Gentileschiren** koadro bat ikusi ostean; lagun batekin elkartzeko proposamena jasoko du Inesek, eta ezingo dio ezetzik esan; gutun bat idatziko dio ama batek aspaldi ikusi ez duen alabari, zerbait gertatu delako etxean, baina noiz ez da zerbait gertatu etxe horretan?; emakume bat alokatutako autoan helduko da familiaren etxera hainbat urte pasa eta gero; egoitzaz mugituko dute hegazkin istripuen bideoak ikustea gustuko duen andrea. Maitale, lagun, senide zein klase arteko harremanen ertzak behatu ditu idazleak bederatzi kontakizun hauetan, nola, isiltzearen isiltzez, zerbait pitzatzen den azkenean eta tartetik argi-zirrinta bat sartu, joan edo geratu, ezinbestean erabaki behar ez dela ohartuz.



# EVA GARCÍA SAENZ DE URTURI

**Vuelve Eva García Sáenz de Urturi y lo hace con otra novela de la serie Kraken, una esperada historia que destila el excitante pulso de un thriller hilado con esmero. Vuelven las calles de Gasteiz y se estrenan los canales de Venecia, sus museos, sus galerías y todo su carisma.**




**EL ÁNGEL DE LA CIUDAD**
Eva García Saenz de Urturi
PLANETA

**¿Qué se va a encontrar el lector o la lectora que se asome por primera vez a sus libros en *El ángel de la ciudad*?, ¿y quien ya sigue la serie Kraken?**
Es mejor que comiencen por el primero de la trilogía de la ciudad blanca, *El silencio de la ciudad blanca*, o al menos, por *El libro negro de las horas*.

**¿Hasta qué punto influye el público lector en la decisión de escribir un nuevo libro?**
En ese sentido, soy yo quien decide cuál va a ser la próxima novela que escriba. Verás, comprometerme a escribir un libro supone que el próximo año o año y medio de mi vida voy a estar al cien por cien con una historia, y para que eso ocurra, la decisión y la elección de la historia ha de venir siempre de dentro.

**¿Cómo vive su ciudad natal desde que escribe sobre ella?**
Escribo y describo Vitoria-Gasteiz desde el homenaje, desde el amor a mi ciudad y a mi tierra, en ese sentido, el hecho de haber escrito cinco novelas ambientadas aquí supone para mí una capa emocional más en algunos escenarios como la casa de Kraken, la almendra medieval o la Senda.

**¿Por qué ha elegido Venecia?**
En mis novelas siempre es la trama la que lleva al escenario. En el caso de *El ángel de la ciudad*, la trama de falsificación de unos lienzos de Dalí me llevaba inevitablemente a Venecia, repleta de galerías y museos.

**¿Cuál es la fase de construcción de una novela que más disfruta?, ¿y la que más le cuesta?**
Todas se disfrutan, la parte de documentación y de búsqueda de personajes, trama y escenarios está muy abierta a las sorpresas, a los viajes y a las conversaciones con expertos o con lugareños. Después está la parte más creativa, aunque hablar de planificación o escaletado de escenas pueda parecer muy cerebral, en realidad es cuando creo la historia desde cero y decido lo que va a ocurrir y en qué orden lo presento. Después viene la fase del primer borrador, la cual disfruto mucho y permito la improvisación y la imaginación y después los sucesivos borradores, entre cuatro y ocho, dependiendo de la complejidad y el número de subtramas.

© SOLE HAFNER



*"Escribo y describo Gasteiz desde el homenaje, desde el amor a mi ciudad y a mi tierra"*

**¿Hasta qué punto le inspira la vida real, las personas reales?**
No suelo incorporar personas reales a mis novelas, me supone mucha más libertad crearlas desde cero y atribuirles los rasgos que más van a brillar en base a la trama.

**¿Diría que estamos viviendo el boom del thriller vasco?**
Estoy orgullosa de que mis novelas ambientadas en Vitoria-Gasteiz se lean en veintipico idiomas y en cuarenta países. Me resulta muy gratificante estar contribuyendo a que mi ciudad se conozca y a que las rutas turísticas de mis novelas atraigan desde 2016 a lectoras y lectores de todo el mundo.

**TERESA SALA**
Periodista



# EUSKARAZKO LEHEN POLIZIA-ELEBERRIA

EREIN

Hirurogeita zortzi urte igaro dira **Jose Antonio Loidi Bizkarrondo**ren (Errenteria, 1916 - Irun, 1999) *Hamabost egun Urgainen* lehenengo aldiz argitaratu zela, eta jende oso gutxik daki hura izan zela euskaraz idatzitako lehen polizia-eleberria. Liburua mugarria da euskal literaturaren historian, eta are, egun ere irakurleen arreta piztu ohi duen generoan. Euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenen zerrendan dagoelako ere bada esanguratsua, katalanera itzuli baitzen 1961ean.

Urgain izeneko herrian kokatu zuen istorioa Loidik. Herri baketsua da Urgain, baina herri baketsuenetan ere gertatu ohi dira gauza ikaragarriak. Galde diezaiotela, bestela, kanposantuko arduraduna den Txomini: hildako bat lurperatzeko prestaketak egiten ari dela, tiro baten hoska ikusi dio aspaldi hobiratutako emakume baten gorpuari. Nork egin zion tiro? Garaidi izeneko gazte batek hartuko du bere gain ikerketaren ardura. Hura da, beraz, istorio honen protagonista eta lehen euskal detektibea. Honela deskribatzen du egileak: "Bere buruz lapur eta eraile bila jarduten dena. Oso azkarra eta gauza hauetara ohitua".

Edizio berri honetarako, aldaketa batzuk egin ditu Erein argitaletxeak, hala nola, ilustrazioak kendu ditu, eta azal berri bat egin dio **Kristina Fernandez**ek. Bildumaz aldatu dute, gainera; polizia-eleberria izanik, *Uzta gorri*ra igaro da –azken honek nobela beltzak eta misteriozkoak biltzen ditu–. Aurreneko edizioetan egin diren gaizki ulertuak eta akatsak zuzendu dira; Ereinek gaur egungo irakurleek arazorik gabe irakur dezaten finkatu nahi izan du 1955eko testua, **Loidi**ren eta gure hizkuntzaren orduko doinua eta kolorea galdu gabe.




**HAMABOST EGUN URGAINEN**
Jose Antonio Loidi
EREIN




**KANGAROO**
Martin Etxeberria
ELKAR

ELKAR

# KANGAROO

**Martin Etxeberriak** bere bosgarren poesia liburua plazaratu berri du, *Kangaroo*. Hein batean, aurreko lanean (*Winston*, 2018) irekitako bidean sakondu du oraingoan.

Liburuaren sarreran egileak argitzen digun bezala, **Cook** kapitaina Australiara iritsi zenean, bere espedizioko botanikoak, jauzi handiak egiten zituen piztia seinalatuz, haren izenaz galdetu omen zien bertakoei, eta hauek "Kan ghu ru" erantzun. "Kangaroo" bataiatu eta hala ezagutzen dugu geroztik delako animalia hori, nahiz "Kan ghu ru" hitzek "Ez dizut ulertzen" esan nahi omen duten hangoen hizkuntzan.

Pasadizoaren umorea gorabehera, zerbait esan nahi digu poesiaren izaera paradoxikoaz; izan ere, gauzen izendatze esentzial moduan ikusi ohi dugu poesia, tribuaren berbei beren esanahi jatorrizkoa emate bat, mundua eta bertako izaki guztiak birbataiatze moduko bat. Baina, aldi berean, ilunak egiten zaizkigu maiz poeten hitzak, erdizka ulertzen ditugu eta beste erdia asmatu, zuzen ala oker.

Egileak ere ez duela mundua ulertzen adierazi nahi digu nonbait, ezta bere burua ere, mundu horren ispilu hutsa den unetik. Eta beraz, **Cook** eta enparauen antzera, hitz asmatu eta okerrez bataiatzen dituela hau eta bestea, zehazki hori ez dela jakin arren.

**Martin Etxeberria**, bere poeta-ibilbide osoan, akrobataren soka gainean ibili da orekan, ohikotasunaren eta surrealismoaren artean. Eguneroko gertakariak hartu ohi ditu kantagai, baina misterio aire batez jantzen ditu gero, bizitzari arruntetik duena kendu eta mirarizkotik duena azpimarratzeko bezala, bere ilunpetik erakargarri zaiguna ospatzeko: sexua, alkohola, gaua…



# TONI HILL

***El último verdugo*, publicada por Grijalbo, es la nueva novela de Toni Hill (Barcelona, 1966). Este autor, que combina calidad literaria con sofisticados argumentos, se adentra en la mente de un asesino en serie que mata a sus víctimas con un garrote vil. La prestigiosa criminóloga Lena Mayoral formará parte de una investigación que le complicará la vida hasta extremos insospechados.**




©ISMAELTATO




**EL ÚLTIMO VERDUGO**
Toni Hill
GRIJALBO

**Nos encontramos con un asesino en serie para los que, como se señala en la novela, no hay estándares.**
Sí, en ninguna de mis novelas anteriores había abordado el personaje clásico del serial *killer* y me atraía mucho acercarme a una personalidad perturbada, trabajarla desde un punto de vista literario e intentar reflejarla en toda su complejidad.

**Lena Mayoral es una criminóloga que ha obtenido un gran éxito como escritora. Su fama va a llevarla a colaborador con los Mossos d'Esquadra y, por supuesto, su vida se va a complicar, ¿verdad?**
¡Las vidas de mis personajes siempre se complican mucho! Pero Lena tampoco es una persona sencilla. Es obstinada, muy trabajadora, una profesional consciente de su valía, capaz de desafiar a la autoridad, y a la vez solitaria, frágil por dentro, mucho más vulnerable de lo que parece.

**Barcelona forma parte del mensaje que quiere trasmitir el psicópata.**
Hacía mucho que no tomaba la Barcelona actual como escenario principal de una novela y me apetecía volver a ella. El psicópata juega con los escenarios de la ciudad dentro de su fantasía, y eso me ha permitido mostrar rincones algo desconocidos de una ciudad que en los últimos años se halla sumida en un profundo proceso de cambio, algo que nunca puede hacerse a gusto de todos.

**El personaje de Lena le permite hablar del mundo editorial, que también da mucho de sí.**
El mundo editorial es uno de los más desconocidos para quienes no forman parte directa de él, incluidos algunos autores, periodistas culturales y libreros. Ha logrado conservar un cierto glamour y me parece bien que así sea, pero a veces no puedo resistirme a descorrer un poco ese telón de terciopelo y atisbar hacia un interior que es mucho menos lujoso…

**Es una novela que se ciñe al género negro, pero usted no prescinde de ciertos toques de humor.**
El humor está presente en la vida, por suerte. Y la ironía a menudo se revela como un arma imprescindible para describir una realidad que a veces adopta tintes absurdos. Yo no podría vivir sin reírme, o al menos sonreír, y creo que tampoco puedo escribir sin ese ligero toque de humor que surge incluso en los momentos más descarnados.

**La estructura de la novela contribuye a que la novela tenga mucho ritmo.**
Sí. Tuve claro desde el principio que estaba escribiendo un *thriller* y que el ritmo debía ser muy marcado. La dificultad estribaba en lograr esa agilidad sin renunciar al estilo y a la profundidad de la trama y de los personajes. El ritmo rápido no debería ser sinónimo de superficialidad.

**TXANI RODRÍGUEZ**
Periodista



# JUAN KRUZ IGERABIDE

**Gogoeta pertsonal literarioak bildu ditu Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) *Ura saltoka* saiakeran. Naturaz eta kulturaz hausnartu du bizipen pertsonaletatik abiatuta eta gogoetak osatu ditu bizi osoan zehar bidaide izan dituen erreferentzia teoriko, literario eta filosofikoekin.**



© JON MIRANDA



**URA SALTOKA**
**NATURA ETA KULTURA JOLASEAN**
Juan Kruz Igerabide
ALBERDANIA

**Bazenuen gaztetan mendiarekiko eta naturarekiko sentsibilitatea, baina gaztaroan eman zenuen saltoa ekologismora. Zergatik?**
Bai, internazionalismo proletariotik naturismora. Unibertsitate garaian giro oso erradikal batzuk ezagutu nituen, eta nik esaten dudan gisan, "taldekeria" bortitzagoan ibili nintzen. Giro horretatik nentorren. Trantsizio garaia etorri zen, eta hein handi batean, niretzat behintzat, hondoratze ideologikoa etorri zen. Nire inguruan jende askok drogara jo zuen. Nik, ordea, mendian eta basoan sentitzen nuen betetasuna, sumatu nuen bizigogoa naturatik zetorkidala. Aurretik banekarren natura eta yogarekiko zaletasuna eta gehiago sakontzen joan nintzen, irakurtzen eta praktikatzen. Bilaketa bat hasi nuen gaurdaino iraun duena.

**Beti hartu nahi izan du gizakiak natura mendean?**
Gizakiok natura esaten dugunean, normalean natura bezatu bat nahi dugu, gure mendera eta kapritxora daukaguna. Gure kultura garatzeko natura manipulatu egiten dugu, askotan, naturarekiko harmonia bera galduz. Nahikoa ebidentea da ez diogula naturari bere lana egiten uzten. Baina gu saiatu izanagatik ere, menderaezina da natura. Uste dut kulturak aukera ematen digula naturari den bezala begiratzeko. Kultura begiak dira, belarriak dira, natura bera kaptatzeko modua.

**Literaturak ere balio du natura behatzeko?**
Bai, noski. Nik naturan arnasa hatzen dut. Hartu eta bota. Hori bukatzen denean, akabo. Ume jaioberriei begiratzea besterik ez dago, arnasa hartzen dute, bihotza mugitzen zaie, taup-taup, hor erritmoa dago, eta horrekin batera emozioak agertzen hasten zaizkie. Umea zinkurinka hasten denean poesia egiten hasten da. Zientifikoak esango dizu erreflexuak direla. Baina nik diot erritmoak daudela hor; nik poesia ikusten dut hor.

**Liburuaren azken aldera, gaur egungo gaiei gehiago lotzen da eta itomena atzematen zaizu.**
Bai. Izan ere, bat digeritzen hasterako hurrengoa datorkigu. Ez digute denborarik uzten. Hain bizkor joate horrek buruari ez dio uzten bere patxada gauzak aztertzeko. Nik ikuspegi zabalago batekin ikusi nahi ditut gauzak. Higieneagatik besterik ez bada ere, bertsio ofizialetik kanpora dagoena ere jakin nahi dut, interesatzen zait. Pandemia, faxismoaren gorakada, gerra, prezioen igoera... aurrean dauden indar hauek etsitzeko modukoak dira, eta okerrena da lepotik nori heldu ere ez dakigula azkenerako. Guztia algoritmo batek sortutakoa dela dirudi. Datuek berez pentsatzen al dute ba?

**Guzti honen aurrean zein proposamen luzatzen duzu?**
Segi begiak irekita. Segi zure burua zaintzen. Segi naturarekin kontaktuan. Segi irakurtzen. Segi ikuspegia zabaltzen. Berdin dio kondenatzen bazaituzte. Badakit nik liburuan esandakoekin jende asko ez dela ados egongo. Ni neu ere agian ez, hemendik hilabete batera. Baina niri barrenak askotan gauza askorekin ezetz agintzen dit. Barruko sena entzun eta horri jarraitzen diot nik. Urak errota martxan jartzen duen bezala, liburu honekin nire interesik handiena izan da buruaren errotak martxan segitzea. Ez nireak bakarrik, baita ingurukoenak ere. Saia gaitezen jartzen dizkiguten kabestruetatik kanpora begiratzen eta gure senari jarraitzen.

**JON MIRANDA**
Kazetaria



# SALITRE EN VENA

**Podemos pasar horas con la vista en el mar, en el ir y venir de embarcaciones, la chavalería que se zambulle en el agua o las gaviotas que sobrevuelan el litoral. Nos acaricia una suave brisa mientras el golpeteo de las olas marca el paso del tiempo. Si nos acompaña un buen libro, la experiencia adquiere categoría de excelsa.**




Enseguida recordaremos alguno de los clásicos marineros que dejan huella. Obras inmortales como *Altxorraren Uhartea* o *La isla del tesoro* (**R.L. Stevenson**), *El viejo y el mar* (**E. Hemingway**), *Moby Dick* (**H. Melville**), sagas como las dedicadas por **Emilio Salgari** al Corsario Negro o los cómics de **Hugo Pratt** protagonizados por Corto Maltés, y, por supuesto, novelas de imprescindibles como **Julio Verne**, **Joseph Conrad**, **Jack London**…

En Euskal Herria varias generaciones se han hecho a la mar enrolados como grumetes en los libros de **Pío Baroja** (*Pilotos de altura*, *Las inquietudes de Shanti Andia*…) o con los pescadores de *Kresala*, la novela de **Txomin Agirre**.

Lejos de agotarse con los clásicos, la llamada del mar se renueva con cada ola de títulos que alcanza las librerías. La vieja lucha entre el ser humano y el animal icónico, por ejemplo, ha recibido una vuelta de tuerca en *El libro del mar*, una crónica de **Morten Stroksnes** sobre la caza de un tiburón boreal.

Sin abandonar el mundo de la crónica y con un pie ya entre los clásicos, *Relato de un náufrago*, de **Gabriel García Márquez**, describe el ascenso y caída de Luis Alejandro Velasco, tras pasar diez días a la deriva en una balsa. Hablando de clásicos, *El mundo de Homero*, de **John Freely**, propone un fascinante viaje por el Mediterráneo tras las huellas de la Ilíada y la Odisea. Y si preferimos los carámbanos a las aguas templadas para una travesía real pero no menos mítica, debemos optar por *Endurance*, de **Alfred Lansing**.

Dentro de la pura ficción, *Brighton Rock*, novela de suspense de **Graham Greene**, contrapone el veraneo despreocupado y los bajos fondos que conviven en una ciudad playera. Claro que, para playa de novela negra, *La playa de los ahogados*, de **Domingo Villar**, un arenal gallego al que el mar escupe sus víctimas.

Las vacaciones costeras protagonizan algunas de las novelas de **Virginia Woolf**, sobre todo la renombrada *Al Faro*. No son vacaciones, pero sí estancias prolongadas en islas o embarcaciones las que dan vida a obras de **William Golding** como el clásico *Eulien ugazaba* o *El señor de las moscas* y a la trilogía marítima iniciada con *Ritos de paso*.

Otros mares más cercanos aparecen, por ejemplo, en *Baleen berbaroa* o *Voces de ballena* y, en general, el universo literario de **Edorta Jimenez**; en el cómic *Helize* de **Mikel Begoña**; en la exhaustiva *Naufragios en la costa vasca 1976-2016*, de **Ana María Benito** y **Javier Mazpule**; o en las obras del género negro que firman autores como **Ibon Martín**, **Alaitz Leceaga** o **Mikel Santiago**.

**ARANTXA IRAOLA**
Kazetaria

# FELIX ARRIETA

***Zaintzaren hariak. Oihal berri baterako bideak ehuntzen*** **liburuarekin Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko graduko irakasle Felix Arrietak (Donostia, 1982) gakoak eman nahi izan ditu egun zaintza sistemak dituen gabeziak ikusten laguntzeko eta sistema osoago baterako urratsak nola egin daitezkeen iradokitzeko.**



*“Gure ongizate sistemak ez du zaintzaren gaia inoiz erdigunean jarri”*

© ELKAR




**ZAINTZAREN HARIAK**
Felix Arrieta Frutos
ELKAR

**Zerk bultzatu zaitu lan hau egitera?**
Nik beti eduki dut gizarte zerbitzuen sistemarekiko kezka, uste dut erronka zabalak dauzkala, hobetu beharreko aldeak, eta pandemiaren ondorenean uste dut, gainera, gai horren gaineko kezka zabaldu dugula esparru guztietara. Horretan ere onartu beharra dago mugimendu feministak egin duen eta egiten duen lana, eta uste dut momentu egokia dela eztabaida hori zabaltzeko bidean beste aletxo bat jartzeko.

**Zein aldagaik erakusten dute ondoen egungo sistema ez dela aski sendoa?**
Badago aldagai nagusi bat: gure ongizate sistemak ez du zaintzaren gaia inoiz erdigunean jarri. Zergatik? Urte askoan ongizate estatuaren eredua eraiki da gizon zuri langilearen ereduaren gainean. Emakumeak egiten zuen etxeko lana, zaintza lana, eta emakumeek lan mundurako pausoa egin dutenean egoera hori ez da aldatu. Horrek oso ageriko jarri du zaintzaren gaineko eztabaida hori zabaldu beharra. Gainera, gurean orain arte horretarako elementu nagusiak ematen zituen sistemak, gizarte zerbitzuenak, badauzka arazo egiturazkoak.

**Zein dira nabarmenenak?**
Nik askotan aipatu izan ditut bi termino. Erkidegoan, baita Nafarroan ere, gizarte zerbitzuen arloan *mataza* handia daukagula esan izan dut, erreferentzialtasun falta izugarri bat; uste dut klabeetako bat hori dela. Gero sistemaren gobernantzan ere ez daukagu sistema bakar bat; osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen artean elkar ekintza handiagoak sortu behar dira, eta gobernantza eredua aldatu behar da gizarte zerbitzuetan sistema helduago bat izateko, osoagoa. Aurreko liburu batean *artxipelagoa* terminoa aipatu nuen, eta artxipelago hori desegin egin behar da: sistemari gorpuzkera bat eman behar zaio.

**Liburuan zer kontatu nahi duzun ondo azaltze aldera, pertsonaia bat asmatu duzu; zaintza beharrean dagoen emakume bat...**
Bai, Koro da. Koro nik ezagutzen ditudan hainbat pertsonaren batura da. Liburuan Koro Donostiako Gros auzoan bizi da, eta Kororengan ikusten dugu zer gertatzen zaion adineko pertsona bati zaurgarri izaten hasten denean, bere burua ahulago ikusten duenean… Haren kasuari begira ikusten dugu zer den berreraiki behar duguna.

**Zein dira hor aurrera egiteko gakoak?**
Nik hor bereiziko nituzke epe luzea eta epe ertaina. Epe luzera beste erakundetze bat behar dugu, eta uste dut eztabaida hori egiteko momentua dela. Horrek luze jo dezake. Epe motzera begira, ordea, toki mailak aukerak eman diezazkiguke beste modu batean artikulatzen hasteko arreta; hori egin daiteke osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen artean adostasunak lortuta eta erreferentzia bakarrak sortuta, azkenean ez dezagun pertsona mareatu; administrazioa jar dezagun pertsonen zerbitzura, eta ez alderantziz.

**ARANTXA IRAOLA**
Kazetaria



# KABIR BEDI

## HISTORIAS QUE DEBO CONTAR




El actor **Kabir Bedi** ha publicado su autobiografía, un libro en el que recuerda su dilatado periplo profesional en el cine y la televisión, así como los azarosos avatares de su vida privada. “Mi vida ha sido una montaña rusa de emociones”, confiesa. Al leer este libro, tendremos la sensación de volar con él.

De hecho, pocas veces tendremos a nuestro alcance una autobiografía tan honesta. Kabir Bedi (1946) fue el inolvidable Sandokán en la serie que, emitida en las televisiones públicas española e italiana, se convirtió en un fenómeno social en los años 70 del siglo pasado. En este libro ha desnudado su alma, hasta el punto de narrar, no solo su carrera de estrella internacional, sino también las tragedias que le han sobrevenido, los grandes amores atormentados y el sabor, a menudo amargo, del éxito.

Detrás de una fachada deslumbrante hay un hombre íntegro y vulnerable que ha intentado conciliar sus valores, su espiritualidad y sus afectos con sus propias ambiciones. Y que ha tenido que convivir con las leyes, a menudo cínicas, del mundo del espectáculo, desde Bollywood a Hollywood, pasando por Europa.

Por las páginas de *Kabir Bedi, historias que debo contar* veremos desfilar a grandes personajes de la historia del siglo XX, como los Beatles, los Gandhi, **Federico Fellini**, el Dalai Lama y **Bertolucci**, entre otros.

Quien se acerque al libro disfrutará de una buena biografía, con contenido. Conocerá o revivirá el fenómeno Sandokán y verá cómo funcionan Bollywood y Hollywood detrás de las bambalinas. Por si todo ello fuera poco, tendrá acceso al sijismo, budismo e hinduismo a través de un actor educado como monje en su infancia, descendiente del creador del sijismo, cuya madre inglesa alcanzó el más alto rango en el budismo y cuyo padre fue filósofo espiritual.

**HISTORIAS QUE DEBO CONTAR**
Kabir Bedi
AMOK EDICIONES



# BLACK IS BELTZA,
## LAU KANTUKO BINILOA

Honez gero ozen esan dezakegu, batere zalantzarik gabe: ez dago euskal kulturan Fermin Muguruzaren Black is Beltza bezain zabal hedatu den unibertso sortzailerik. Luzemetraia bi, komiki liburu bi, erakusketa, diskoak… Eta, unibertsoa dela erakutsiz, zabaltzen jarraitzen du. Oraingo honetan lau kantuko binilo bat kaleratu du, beste behin ere euskaratik abiatuta kalitate handiko proiektua internazionala eta multikulturala dela agerian utzita.

Maxiaren A aldean El Gran Silencio taldea aurkituko dugu. Mexikotik dator bere cumbia-vallenato-ipar punkekin eta Fermin beraren kolaborazioarekin. Eta, bestetik, **Joseba Irazokik** *Sarri, Sarri, Kriston martxa dabil* kanta mitikoaren bertsio apoteosiko bat ondu du. Beratarrak bere ubide musikalera ekarri du Kortaturen doinurik dantzatu eta kantatuena. Emaitza txundigarria da.

B aldean, berriz, kantu bi gehiago topatuko ditugu. Batetik, **La Basu** (Euskal Herria), **Wöyza** (Galiza) eta **TESA** (Pais València) emakumezko raperoek beraien powerra aldarrikatu dute, hiru hizkuntzatan aldarrikatu ere, *Rap is Beltza* abestian.

Bestetik, *Bizitza triste eta ederra* aurkituko dugu, Negu Gorriaken *Ustelkeria* (1996) diskoan agertu zen kanta, **Iñigo Muguruza**ren ahots eta gitarrarekin. Orain, *hip hop* erritmo indartsu batekin hornituta, Iñigo anaia zenduaren etaFerminen arteko topaleku bihurtu da.

Maxi honen aurretik, Black is Beltza proiektuaren baitan disko bi gehiago kaleratu dira, pelikula bietako soinu bandak alegia: *Black is beltza* (2018) eta *Ainhoa* (2022). Azken hori biniloan ere plazaratu da, lp bikoitza osaturik.



**BLACK IS BELTZA 2. AINHOAK AURKEZTEN DU**
Batzuk
ELKAR-TALKA

---




**LA PUERTA ABIERTA**
BALADAS VASCAS E INTERNACIONALES
ALAN GRIFFIN
AZTARNA

# LA PUERTA ABIERTA
## La balada popular vasca en el contexto internacional

El músico **Alan Griffin** publica *La puerta abierta. Baladas vascas e internacionales*, el primer estudio monográfico sobre los vínculos que enlazan las baladas populares en euskera con las de otras lenguas. Un libro que aporta luz y hace más comprensible una parte del cancionero tradicional vasco.

Nacido en Irlanda, **Alan Griffin** llegó a Euskal Herria en 1984, cuando un doctorado de literatura le condujo a Donostia. Seducido por la música vasca, comenzó a acompañar en sus actuaciones a cantantes como **Txomin Artola** o **Amaia Zubiria** y a participar en discos de **Benito Lertxundi**, **Xabi San Sebastian**, **Olatz Zugasti** y otros muchos. Además, formó parte del grupo Alboka, dedicado a la recuperación de temas tradicionales poco conocidos y a la composición de nuevas melodías de corte popular, con el que grabó cinco discos.

En *La puerta abierta* cada capítulo incluye una comparación de una balada vasca con sus homólogas extranjeras, acompañada por un análisis detallado de sus semejanzas y diferencias. Por esta vía desvela vínculos sorprendentes entre la tradición vasca y las europeas. Asimismo, por primera vez da a conocer las fuentes originales de las denominadas *sasibaladak*, o pseudobaladas, traducciones al euskera cuyo autor publicaba como si fueran tradicionales. Cada capítulo finaliza con una relación completa de las versiones vascas y de la mayoría de las extranjeras.

